

Zuzendaritzaren proposamena

Ordutegi aldaketaren finkatzearen inguruko batzar zabala

Erronka berriei erantzuna eman ahal izateko, aurtengo ikasturtea ordutegi berriarekin hasi dugu. Modu honetan besteak beste, Koronabirusaren eraginari aurre egiteko protokoloa arazorik barik txertatu ahal izan dugu gure ikastetxean.

Ikasturteko martxa aztertu ostean, aurrera begira behin behinekoa den ordutegi aldaketa hau egonkortzeko proposamena luzatu nahi du zuzendaritzak. Izan ere, ordutegia finkatzearekin, ikastolarentzat garrantzitsuak diren helburu hauek bermatuko ditugu:

1- LH eta DBHko irakasleen barne antolaketa egokia bermatzea, irakasleen efizientzia areagotuz. LH eta DBHko etapak 9:15etatik aurrera era sinkronizatuan ekiten diote egunari. Honela, bi etapa hauetan lanean ari diren irakasleak erraztasunez mugitu daitezke batetik bestera. Jarduera hau malgutasunez egitea ez zitzaigun posible egiten aurreko ordutegiarekin.

2-Eskola Kirola proiektu era bateratuan martxan jartzea. Urteetan udala eta eskolarekin batera egin dugu lanketa. Erronka hau gauzatzeko ezinbesteko baldintza, ikastolako ikasleak 16:15ean ateratzea da udalaren eskariz.

Bestalde, azpimarratu beharra dago, ikastolak ezin besteko proiektutzat duela eskola kirola. Umeen heziketa integralean bere biziko garrantzia du. Era berean, herriko jarduera fisikoarekin lotuta dauden eragileen esku hartzea bateratu eta irizpide berdinekin jarduteko aukera ematen digu. Kirola ez da lehia soilik!

3-Jolasordua hiru txandatan antolatu ahal izatea. Modu honetan ikasleek kanpo espazio eremu handiagoa izango dute beraien erabilerarako.

4- **Jantokian** ere otorduak lasaitasunez burutzeko behar hainbat txanda antolatzeke aukera izan dugu. Orain arteko balantzea burutu dugu eta nabarmen aldatu da jatorduen kalitatea. Lasaitasuna irabazi dugu. Bazkal orduko kanpo ekintzak ere modu mailakatuan egitea lortu dugu. Gainera hiru jangeletan neska mutilen pilaketak ekiditu dira.

Jakin badakigu familia batzuentzat aldaketa honek hasiera batean zailtasunak ekarri dituela eta horregatik proposamena zuzenean familiekin elkarbanatzeko batzar zabala egingo dugu datorren **urtarrilaren 20an 17:30ean ikastolako frontoian**. Batzar honen helburua ikastolarentzat ordutegi aldaketak dakartzan abantailak zuzenean azaldu, eta familien kezkak jasotzea izango da. Batzar honetan jasoko diren ekarpenen arabera beharrezkoak diren zaintza edota bestelako neurriak hartuko dira.

Ordutegi aldaketa behin behineko egoeratik behin betiko egoerara pasatzeko, artezkaritza eta klaustroaren onarpenaz gain, familien onarpena behar dugu. Proposamena onartuz gero, Hezkuntza Sailera bideratuko dugu.

Honako hau izango da ikastolaren ordutegi proposamena. Baina esan moduan guzti honen inguruan berba egiteko bilera egingo da, beraz guztioi parte hartzera animatzen zaituztegu.

HH	LH	DBH
09:15-12:45	09:15-12:45	08:15—12:45
14:15-16:15	14:15-16:15	14:15-16:15 <i>*asteazkenetan: 08:15-14:00</i>

Zuzendaritza Taldea